



GIZARTE LANGILEENTZAKO SARS-CoV-2AREN AURKAKO PREBENTZIO-PROTOKOLOA

Bizkaiko Gizarte Langintzako Elkargo Ofiziala

1.0. bertsioa, 2020ko Martxoaren 12koa.

Euskadin koronabirusaren infekzio-kasuak izan ondoren, eta kutsatutako pertsonen kopuruaren gorakadaren azken berrien aurrean, Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak gure elkargokideen artean honako gomendio-bilketa hau zabaldu nahi du, egiten dugun esku-hartze profesionalari begira.

GIZARTE LANEKO PROFESIONALEK ZERGATIK JARRI BEHAR DUGU ARRETA BEREZIA BABES NEURRIETAN?

Gizarte-langintza, sarritan, COVID-19 koronabirusak eragindako sintomen garapenaren ondorioz arrisku handiagoa duten pertsonekin eta/edo kolektiboekin egiten du lan.

Pandemiaren (OMEk 2020ko martxoaren 11n ofizialki aitortua) kutsaduraren hedapena ahal den neurrian murrizteko helburuarekin, gizarte-langileok arreta berezia jarri behar dugu osasun-erakundeek egindako ekintza eta gomendioetan.

NOLA ERAGITEN DU KORONABIRUSAK?

Bizkaiko Medikuen arabera, *"Infekzio iturria ezezaguna da, eta ziurgabetasuna dago larritasunari eta transmititzeko gaitasunari dagokienez"*.

Osasun-agintariek adierazi dutenez, inkubazio-aldia 2 eta 14 egun bitartekoa da, eta, batez ere, *"gaixoaren ezularekin eta doministikuarekin sortzen diren arnas jariakinekiko kontaktu estuaren bidez"* transmititzen da.

Osakidetzaren arabera, birusak eragiten dituen sintoma ohikoenak, eztula, eztarriko mina, sukarra eta aire faltaren sentazioa dira.

Aurretik azaldutakoa eta pandemiaren hedapena hartzen ari den garrantzia kontuan hartuta, arlo soziosanitarioko profesionalak garenon aldetik, erantzukizunez eta norbanakoaren eta taldearen elkertasunez kontu handiz ibili behar dugu, ahal den neurrian birusaren transmisioa saihesteko.



GOMENDIOAK

- GOMENDIO OROKORRAK edozein egoeratan

- **Lan-guneak garbi** eta higienizatua mantentzea, maiz garbituz (idazmahaia, ordenagailua, ate-heldulekua, etab.).
- Gutxienez **pertsonetikiko metro eta erdiko distantzia** mantentzea, arreta berezia jarriz doministiku edo ez tul egiten duten pertsonengan.
- **Eskuak maiz urez eta xaboiz garbitu**, eta begiak, sudurra eta ahoa ez ukitu. Urarekin eta xaboiarekin garbitzea ezinezkoa baldin bada, erabili soluzio hidro-alkoholikoak.
- Enpresa eta erakunde bakoitzaren **jarduera-protokoloak ezagutzea**, eta arnas infekzioarekin bateragarria den **edozein sintoma izanez gero** (eztula, sukarra, arnasteko zailtasuna), eta zerbitzuaren arduradunari zuzenean jakinaraztea gomendatzen dugu.
- **Kontaktu fisikoaren ez agurtu** (bostekoa, besarkadak, bi musu eta abar).
- Dokumentu honetan atxikitzen diren **Osakidetzaren gomendioak** kontu handiz eta **zorrotasunez jarraitzea**.

- GOMENDIO ESPEZIFIKOAK GARAPEN PROFESIONALERAKO

- Osasun-agintariak emandako **gomendio orokorrak** zorrotasunez **jarraitzea**.
- Enpresa edo erakunde bakoitzaren SARS-CoV-2 pandemiarekiko **barne-jarduketarako protokoloak ezagutzea, eta** haietan ezarritakoa **betetzea**.
- **Elkartutako pertsona guztien** (erabiltzailea, familia, laguntzaileak, beste profesional batzuk, etab.) **filiarioari eta harremanari** buruzko datuak erregistratzea (izen-abizenak eta, ahal den neurrian, harremanetarako modua).
- **Lan-eremua esku-hartze batetik bestera desinfekzio egokia** egitea.
- Esku-hartzeetan, hitzorduetan eta/edo topaketetan parte hartzen duten pertsona guztien **eskura zapiak gaitzea, baita** estalkia duen **ontziak** ere, erabili eta berehala botatzeko.
- Pertsonaren bat afekzio handiko arrisku-talde batekoa bada, ahal den neurrian, **telefono bidezko esku-hartzea edo esku-hartze telematikoa erraztea**, hala badagokio, erabiltzailearen kutsatze-arriskua areagotu ez dadin.
- Ahal den neurrian, **hitzordutako pertsonak** telefonoz **deitzea**, arnas infekzio akutuekin **sintoma bateragarriak** (eztula, sukarra, doministikuak) **ez dutela ziurtatzeko**.
 - **Pertsonaren batek baieztatzen badu sintoma horietakoren bat duela, eta ahal den neurrian, gutxienez 14 egun atzeratzea topaketa, eta telefonoz edo telematikoki esku hartzen saiatzea.**



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA

- **Bilerak** ahal den neurrian **mugatzea**, ezinbestekoak direnak bakarrik gauzatu. Bilerak gauzatu gero, pertsonen arteko **distantziari buruzko gomendioak betetzea**.
- Ahal den neurrian, hainbat profesionalak partekatzen **duten materialaren erabilera murriztea** (laneko telefono mugikorra, ordenagailu partekatuak, boligrafoak, etab.) eta ahalik eta pertsona gutxien erabiltzea.
- Erabiltzaileek erabilitako **itxaron-geletan gutxieneko metro eta erdiko distantzia bermatzea**, eta, beharrezkoa bada, itxaronaldirako hain ohikoak ez diren espazioak prestatzea (korridoreak, alboko gelak, etab.).
Era berean, itxaroteko guneetan, erabilera bateko **zapiak eskaintzea** eta berehala botatzeko ontzia izatea. Halaber, ahal den neurrian, eskuak desinfektatzeko **soluzio hidro-alkoholikoak** eskuragarri izatea.
 - **Erabiltzaileei desinfektatzeko** metodoak erabil ditzatela gomendatzea, **hitzorduak egin aurretik eta ondoren**.
 - **Osasun-agintariek** emandako oinarritzko **higiene-gomendioak eta zerbitzu bakoitzean** ezarritako prebentzio-neurriak **ikusgai jartzea**.

Ezinbestekoa da, interbentzio baten erdian, edozein pertsonak arnas infekzioaren sintomak baditu, saioa berehala geldiaraztea eta atzeratzea, eta dagokion pertsona kasuan kasuko osasun-agintariek harremanetan jartzea.

OSAKIDETZAREN OSASUN AHOLKUAREN TELEFONOA:

900 20 30 50

ESKERRAK, ARDURA ETA ELKARTASUNA

BGLEOean badakigu protokolo honetan jasotako gomendio espezifikoak praktikan jartzeak ahalegin gehigarria dakarrela gizarte-arloan jarduten duten pertsona guztien garapen profesionalan.

Horregatik, eskerrak eman behar dizkizuegu, ahal den neurrian, birusai ez kutsatzeko eta ez zabaltzeko egiten ari zareten ahaleginagatik.

Gure lanbideak bereziki pandemiarekiko zaugarriagoak diren pertsona eta kolektiboekin egiten duen esku-hartzearen garrantzia azpimarratzea gustatuko litzaiguke, eta ezinbestekoa dela erantzukizunez eta elkartasunez jardutea.



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

Koronabirusa

prebenitzeko

GOMENDIOAK

1

SARRI GARBITU
ESKUAK URAREKIN
ETA XABOIAREKIN



2

EZTUL EDO
DOMINISTIKU
EGITEAN AHOA ESTALI
BESAURREAREKIN EDO
MUKIZAPI BATEKIN



3

ERABILI ETA BOTATZEKO
MUKIZAPIAK ERABILI,
ETA, ONDOREN,
ZAKARRONTZIRA
BOTA



4

ARNAS-SINTOMAREN
BAT IZANEZ GERO ETA
ARRISKU-EREMU BATERA
BIDAIATU BADUZU, ETXEAN
GERATU ETA DEITU
900 20 30 50



Mukiak kendu
edo doministiku
edo eztul egin
ondoren



Komunera
joan ondoren



Animaliekin
kontaktua
izan ondoren



Elikagaiak jan
edo manipulatu
aurretik



Esku zikinak
dituzun
guztietan

